

Ez dakit nork idatzitakoa den ARROSA URDINA izeneko ipuin zaharra. Seguru asko, ahoz aho etorriko zen mende eta gizaldien gainetik. Guganaino. Auskalo nondik. Kontua da jauregi eder batean bizi zela aspaldi Printze bat, jator eta bihotz zabala, ingurukoentzat ongi nahia baino desio ez zuena. Halako batean, ordea, asmo ezinezko bat sartu zitzaion buruan: edertasun erabatekoa aurkitu nahi zuen, kosta ahala kosta.

Garai haietan, mundu guztia zen uste berekoa, denek zekiten non zegoen gorderik edertasun erabatekoa, zein izakik bilbatzen zuen bere baitan munduko gauza eder guztien edertasuna, aldi berean. Haur txikienak eta agure zaharrenak, denek zekiten ederretan ederrena, edertasuna bera, Arrosa Urdina zela. Hura eskuratzen zuenak, zorionaren begiak ezagutuko zituela hurbiletik, oso hurbiletik.

Denek aipatzen zuten Arrosa Urdina, baina ez zuen inork sekula ikusi. Esaten zen behin agertu zela herrian, aspaldi oso aspaldi, Arrosa Urdinaren albiste ekarri zuen norbait, baina gauzak ez zeuden batere garbi. Batzuek esaten zuten iparralderago behar zuela derrigorrez, eta beste batzuek, ostera, hegoalderago behar zuela izan.

Desirak itsuturik, Arrosa Urdinaren bila irtetea erabaki zuen Printzeak. Berdin zitzaion munduari bira osoa eman behar bazion ere, lurralde oro zeharkatu beharrean aurkituko bazen ere, gaztetasun guztia ahaleginean galduko bazuen ere. “Edertasunak hori eta gehiago merezi du”, esateko ohitura zeukala esaten da.

Hala, ba, Martxoko egun batez, jauregiko atea atzean utzi eta ekialdeko lorategitik abiatu zuen pausoa. Eta ibili zituen bazterrak oro, beti ekialderantz, Arrosa Urdinaren ametsetan. Eta ezagutu zituen jende zuriak eta beltzak, handi-handiak eta txiker askoak. Mintzatu zen mila eta bat hizkuntzatan, galde eginez ea inork ba ote zekien non aurki zitekeen Arrosa Urdinik.

Denen ahotan erantzun bera: ekialderago, omen.

Eta ekialde bila beti, Printzeari joan zitzaizkion urte bat, eta bi, eta berrogeita hamabi.

Ibili eta ibili, halako batean, oso urrutira ikusi zuen jauregi bat. Ez zuen hasieran ezagutu, baina bai, bere jauregia zen hura, oraindik ere zutik. Harexek erakutsi zion, itzuli osoa emana ziola munduari. Ekialdearen atzetik beti, mendebaldeko lorategitik ari zela itzultzen etxera. Eta hantxe, ataritik bi pausora, ikusi zuen, ederretan eder, Arrosa Urdina, lorategiko bazter batean.

Hartu zuen eskutan emeki-emeki eta eten egin zuen bere lekutik. Benetan zen eder Arrosa Urdina. Egia zen hori.

Zorionari ikusi zizkion begiak bai, baina istant batez bakarrik, beste gogoeta batek irentsi baitzion pozaren aukera: hain hurbil dagoenaren bila joan izana hain urruti.

Urtzi Garmendiaren argazkiek ederki erakusten dute edertasuna ez dela izaten beti urruneko. Batzuetan ez dela izaten buelta handiegiren beharrik. Ikusten jakin behar. Eta berak badaki. Bistan da hori.

Hasier Etxeberria.  
Hendaian 051201.